

Lugar de presentación:

*DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO
AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO.*

Concurso de microrrelatos.

Sección de Información y Educación Ambiental

C/ González Tablas, 9

31005- Pamplona (Navarra)

Datos de contacto:

848 424910/ 848 427582

sian@navarra.es

*Inscripciones y presentación de los
trabajos:*


Hasta el 21 de octubre.

Idiomas:

Castellano o euskera



*Mi aportación
diaria para reducir
los residuos*



*Concurso de
microrrelatos*



*Breves relatos sobre las
actuaciones realizadas
diariamente con objeto de
reducir los residuos*

Bases del concurso:

PRIMERA: OBJETIVOS

El Gobierno de Navarra, a través del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, organiza el I Concurso de Microrrelatos “Mi aportación diaria para reducir los residuos” como novedad dentro de los actos a celebrar en torno al “Día de Navarra”, con el fin de promocionar la **creación literaria** entre los/las jóvenes escolares y su relación con el **medio ambiente** a través de la **reducción en la generación de residuos en el día a día**.

El trabajo consistirá en redactar un breve relato sobre las actuaciones realizadas diariamente con objeto de reducir los residuos domésticos.

Se valorará la originalidad de los trabajos presentados.

SEGUNDO: REQUISITOS DE PARTICIPACIÓN Y FORMATO.

El primer Concurso de Microrrelatos “Mi aportación diaria para reducir los residuos” está abierto al alumnado de los cursos de 3ª a 6ª de primaria de la Comunidad Foral de Navarra.

El concurso tendrá dos categorías:

- a) De 3º y 4º de primaria.
- b) De 5º y 6º de primaria.

Cada colegio que se presente a este concurso será el encargado de seleccionar a sus finalistas para que lo representen, uno por cada categoría, indicando nombre, apellidos y clase a la que pertenece el alumno/a que ha realizado el microrrelato.

Los trabajos que se presenten deberán ser originales e inéditos

Los trabajos deberán presentarse en DIN A 4 con un formato de letra Arial de 10 puntos con un interlineado de 1,5 a doble espacio y doble cara (si se presenta en formato papel), sin firmar y bajo el lema que se hará constar en el exterior de un sobre cerrado, en cuyo interior y en una cuartilla figurarán nombre, dos apellidos, centro escolar, curso y clase a la que pertenece.

Se podrá realizar en euskera o castellano.

La extensión del relato no será inferior a 1 cara ni superior a 3 caras. El tema seleccionado es “**Mi aportación diaria para reducir los residuos**”.

TERCERA. PLAZO DE PRESENTACIÓN

La inscripción y presentación de los trabajos podrá realizarse desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra de las bases reguladoras hasta el 21 de octubre de 2016 (ambos inclusive) en el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local.

CUARTA: JURADO

La selección de los premiados se realizará por un jurado, que estará formado por:

- ◆ El Director del Servicio del Agua del departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local o técnico en quien delegue.
- ◆ El Jefe de la Sección de Participación y Sostenibilidad del departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local o técnico en quien delegue.
- ◆ El Jefe de la Sección de Residuos del departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local o técnico en quien delegue.
- ◆ La Jefa de la Sección de Información y Educación Ambiental del departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, o técnico en quien delegue.
- ◆ La Jefa de la Sección de Formación del Departamento de Educación, o técnico en quien delegue.

El fallo del jurado se publicará en la página web del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local con posterioridad a la resolución. Además, se publicará en el Boletín de Educación, página web y Redes Sociales, pudiendo difundir el relato por los citados medios.

QUINTA: PREMIOS

El premio para cada categoría consistirá en:

1. Un libro electrónico; un lote de libros sobre naturaleza y un diploma para el/la alumno/a ganador/ a.
2. Una visita a SENDAVIVA para toda la clase.

Los/las ganadores se presentarán en los actos de celebración del Día de Navarra para la lectura de su trabajo y para recoger los premios. La entrega de premios tendrá lugar en la Sala del Trono del Palacio de Gobierno de Navarra en vísperas del día 3 de diciembre, día de Navarra.

Se les anunciará, con la suficiente antelación, las fechas y horarios en que tendrán lugar la entrega de premios y lectura de los relatos ganadores.

SEXTA: COMPROMISO DE REDACCIÓN

La participación en el presente concurso supone la aceptación de las bases así como el acatamiento a las decisiones que tome el Jurado o el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local.

El incumplimiento de las bases podrá implicar la descalificación del concurso, a criterio del Jurado o del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local

SEPTIMA: DERECHOS

El Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local se reserva el derecho a cancelar la participación de cualquier persona que no se ajuste a las reglas fijadas; a dictar normas suplementarias y autorizar excepciones para el correcto desarrollo del concurso y a modificar o ajustar los horarios, que en todo caso, serán anunciados con la pertinente antelación.

La participación en el Concurso de Microrrelatos “Mi aportación diaria para reducir los residuos” conlleva la cesión del relato al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, así como los derechos de reproducción, distribución y comunicación de los dibujos presentados.

OCTAVA: PROTECCIÓN DE DATOS

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, los datos personales obtenidos a través del envío de esta solicitud, cuyo tratamiento es autorizado por los solicitantes, serán incluidos en un fichero propiedad del Gobierno de Navarra.

Non aukeztu:

INGURUMENEN ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Mikrokontakizunen lehiaketa

Ingurumenari buruzko Informazio eta Hezikuntzaren Atala

*González Tablas kalea, 9, beheko solairua
31005 Iruña (Nafarroa)*

Harremanetarako datuak:

848 424910 / 848 427582

sian@navarra.es

Izena emateko eta lanak aurkezteko:


2016ko urriaren 21era

Hizkuntzak:

Euskaraz nahiz gaztelaniaz



*Nire eguneroko
ekarpena
hondakinak*



*Mikrokontakizunen
Lehiaketa*



*Egunero hartu etxeko
hondakinak murrizteko
ekintzak kontu laburra*

Lehiaketaren Oinarriak

LEHENBIZIKOA. XEDEA

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren bidez, mikrokontakizunen I. lehiaketa antolatu du, "Nire eguneroko ekarpena hondakinak murrizteko" izenburupean. Lehiaketa hori berria da "Nafarroaren Eguna" dela-eta egingen diren ekitaldien barnean eta eskola neska-mutilen sormen literarioa eta ingurumenarekiko harremana sustatzea du xede, beren eguneroko bizitzan hondakin gutxiago sortzetik abiatuta.

Parte-hartzaileek kontakizun labur bat idatzi beharko dute etxeko hondakinak murrizteko egunero egiten dituzten ekintzei buruz.

Aurkezten diren lanen originaltasuna baloratuko da.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA FORMATUA.

"Nire eguneroko ekarpena hondakinak murrizteko" mikrokontakizunen lehen lehiaketa Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako 3. ikasmaitatik 6.era bitarteko ikasleei zuzenduta dago.

Lehiaketan bi kategoria daude:

- a) Lehen Hezkuntzako 3.a eta 4.a.
- b) Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a.

Lehiaketa honetara aurkezten den ikastetxe bakoitzak bere finalista hautatu beharko ditu, kategoria bakoitzeko bat, ikastetxearen ordezkari izan daitezten. Mikrokontakizuna egin duten ikasleen izen-deiturak eta ikasgela adierazi beharko da.

Aurkeztuko diren lanek originalak eta aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute.

Lanak DIN A 4 formatuan aurkeztu behar dira, 10 puntuko Arial letrarekin eta 1,5eko lerroartearekin idatzirik, orriaren bi aldeetatik inprimaturik (paperean aurkezten badira), sinadurarik gabe eta lelo batekin. Horrekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoaldean leloa adieraziz, eta barruan egilearen datuak (izena, bi abizenak, ikastetxea, ikasmaita eta gela) jasotzen dituen orri bat sartuta.

Kontakizunaren luzera gutxienez orrialde batekoa izanen da, eta

gehienez hiru orrialdekoa. Aukeratutako gaia "Nire eguneroko ekarpena hondakinak murrizteko" da.

Euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke.

HIRUGARRENA. NON ETA NOIZ AURKEZTU.

Izena emateko eta lanak aurkezteko epea oinarri arautzaileak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 2016ko urriaren 21era arte izanen da (bi egun horiek barne), Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko, ikastetxearekin harremanetan jartzeko behar diren datu guztiak adieraziz.

LAUGARRENA. EPAIMAHAIA.

Epaimahai batek hautatuko ditu sarituak. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- ◆ Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren Uraren Zerbitzuko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen teknikaria.
- ◆ Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren Partaidetzaren eta Jasangarritasunaren Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen teknikaria.
- ◆ Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren Hondakinaren Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen teknikaria.
- ◆ Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren Ingurumenari buruzko Informazio eta Hezkuntzaren Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen teknikaria.
- ◆ Hezkuntza Departamentuaren Prestakuntza Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen teknikaria.

Epaimahaiaren erabakia Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren web orrian argitaratuko da, ebazpenaren ondoren. Gainera, Hezkuntzako Buletinean, web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da, aipatutako hedabideetan kontakizunak ere argitaratu ahalko direlarik.

BOSGARRENA. SARIAK.

Kategoria bakoitzerako saria honakoa izanen da:

- 1.Liburu elektroniko bat, naturari buruzko liburu sorta eta diploma, irabazlearendako.
- 2.SENDAVIVAra txangoa, gela osoarendako.

Irabazleak Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldietara joan dira beren lana irakurtzera eta sariak jasotzera. Sari banaketa abenduaren 3aren (Nafarroaren Egunaren) bezperatan izanen da, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan.

Behar den aurrerapenarekin jakinaraziko zaie zehazki zer egunetan eta zer ordutan izanen diren sari banaketa eta kontakizun irabazleen irakurketa.

SEIGARRENA. PARTE HARTZEKO KONPROMISOA.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta, orobat, Epaimahaia edo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak hartutako erabakiak onartzea.

Oinarriak ez betetzeak lehiaketatik kanpo gelditzea ekar dezake, Epaimahaia edo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak erabakitzen badute.

ZAZPIGARRENA. ESKUBIDEAK.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eskubidea izanen du finkatutako arauak betetzen ez dituen edonor lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketa behar bezala joan dadin behar diren arau osagarriak emateko eta salbuespenak baimentzeko; eta ordutegiak finkatzeko edo aldatzeko, betiere, behar den aurrerapenarekin iragarriko dituelarik.

"Nire eguneroko ekarpena hondakinak murrizteko" mikrokontakizunen lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari lagatzea aurkeztutako lanak, bai eta horiek kopiatzeko, banatzeko eta komunikazio publikorako eskubideak ere.

ZORTZIGARRENA. DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nafarroako Gobernuaren fitxategi batean sartuko dira igorritako eskabide honetatik ateratzen diren datu pertsonalak, eskatzaileek horiek tratatzeko baimena ematen dutelarik